



MITOMIZINA INSTILAZIOEKIN TRATATUTAKO PAZIENTEARENTZAKO INFORMAZIOA

EKINTZA:

Kimioterapia-produktuen instilazioen bidez, maskurian medikamentu bat sarrarazten da, toki horretan hantura eragiteko. Hantura erreakzio horrek jatorrizko tumorea berriz ez agertzea du helburu, edo berriz agertzen bada, gaixotasunik gabeko denbora luzatzea eta tumorea ez garatzea.

ERABILERA:

Instilazioak aldian-aldian administratzen dira kalibre gutxiko maskuriko zunda baten bidez. Tratamendu hau AUOKKn administratzen da, 7. Solairuko Urologia Zerbitzuan. Administratu eta gero, gutxienez ordubetez txiza ez egitea gomendatzen da.

GOMENDIOAK:

Administratu ondoren, behin pazientea etxean dagoela, etzanda egon beharko da ordubetez gutxienez, erosotasun irizpidearen arabera.

Lehen mikziotik ordubetera, eserita egotea gomendatzen da. Mikzioen ondoren, lehen sei orduetan, komenigarria da komuna lixibaz garbitzea (200 ml lixibaz gutxi gorabehera) eta handik 15 minututara komuneko ponpatik tiratzea.

Instilazioaren egunean zehar, LEHEN MIKZIOAREN ONDOREN, 2 litro ur edan behar da.

BIGARREN MAILAKO ONDORIOAK:

Lehen 48 orduetan zehar, baliteke ondokoak azaltzea:

- Odola gernuan, txizagura handia, mina txiza egitean, mikzioen maiztasuna areagotzea, mina artikulazioetan, sukarra eta hotzikarak, eta ondoeza.
- Pazienteak 38°ko sukarra baldin badu bi egunetan baino gehiagotan, ondoeza larria edo gelditzen ez den odol-galera, Larrialdietara joatea gomendatzen dugu.